



2022. URTEKO MEMORIA

AURKIBIDEA

0. AURKEZPENA	3
1. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA	3
Misioa.....	5
Ikuspegia	5
Gobernu-batzordea	5
Estatutuak.....	5
2. ELKARGOKIDEAK	6
3. DEFENTSA PROFESIONALA	6
4. INFORMAZIO- ETA ZEHAPEN-PROZEDURAK.	7
5. OKUPAZIO-TERAPIA EZAGUTZERA EMATEA ETA ZABALKUNDEA EGITEA	7
Bizkaiko Osasun Foroa.....	7
OSOIGO atariaren eskaera.....	7
Elkarrizketa ALEA Araba aldirian.....	7
Eskuliburuak eta Txostenak	7
5.1 ETOLE elkargoaren komunikazioa eta informazioa transmitzea.....	8
Okupazio-terapiaren Eguna	8
ETOLE sare sozialetan	9
6. LANKIDETZA ESTATU MAILAN	10
Okupazio-terapiako Elkargoen Kontseilu Orokorra	10
WFOT.....	10
Socinto	10
Lankidetzaren hitzarmenak	10
7. BESTE JARDUERA BATZUK.....	11
8. LIBURUTEGIA	12
9. URTEKO BATZARRA	12
10. KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA	13
11. ONDORIOAK	13

0. AURKEZPENA

2022. urtean, lehendik genituen lan-ildoekin jarraitu dugu: elkargokideei babesa eta euskarria ematea, gizartean Okupazio-terapiaren figuraren ezagupenen zabalkundea egitea eta ezagupenak eskaintzea, eta Euskadin lanbidearen hobekuntzak lortzen laguntzea.

Barne-mailan, urte nahiko egonkorra izan da: Batzarrerako hauteskundeak egin ditugu, eta Etoleko Zuzendaritza Batzordeko karguak eta kideak berritu ditugu. Figura berriak sartu dira Batzordean eta, pixkanaka, lan-dinamika gero eta produktiboagoa ezartzea lortu dugu.

Aurten, ETOLE maila politikoan aurkeztea izan da Elkargoaren lanaren zati handi bat, herri-administrazio eta erakundeekin kontaktatuz. Horrela, Elkargoa profesionalizatzeko bidean aurrera egin dugu, eta Okupazio-terapiak bere ekarpena egin dezakeen arlo askotan gaur egun funtzionatzen ari diren Foro askotan gaude presente.

Esan ohi dugun bezala, memoria batean ezin da islatu egunez egun egiten den lana, baina azkeneko hilabeteetako lorpenik garrantzitsuenen zein aurkitu ohi ditugun zailtasunen zertzelada batzuk eskaintzen dizkizuegu. Halaber, gure lana bertatik bertara ezagut dezazuen animatzen zaituztegu, guztion laguntzagatik izango ez balitz, ezinezkoa izango bailitzateke hau guztia. ETOLE guztiona eta guztiontzat da!

Agur t'erdi

Miren Valverde, ETOLEko lehendakaria.

1. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA:

XEDEA

Euskadiko Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionala (ETOLE) kideen lanbidea eta interesak ordezkatzeko eta defendatzeko helburuz sortu zen, euskal gizartearen eta Estatukoaren interes eta beharrekin bat etorriz, eta lanbide soziosanitario honen jardunbide ona sustatzeko helburuz, erabiltzaileek beren eguneroko zereginetan

autonomia hobetu dezaten, bizitza independente, egoki eta produktiboa lortzeko bidean lagunduz.

IKUSPEGIA

a) Okupazio-terapiako profesionalaren jardun-esparru ezberdinetan dituen eginkizunen zabalkundea egitea: pertsonenganako eta haien osasun fisiko eta mentalarekiko jarduketak, zein autonomia-maila handiagoa eta bizitza-kalitate hobea lor dezan, haren ingurunera egokitzeko eginkizuna.

b) EAEko okupazio-terapeuten kolektiboa kohesionatzea. Tradizioz, kolektibo aktiboa da elkarteen esparruan, eta sektorearen barruan koordinazioa eta kohesioa sustatzen eta bultzatzen jarraitu nahi du elkargoak.

c) Profesionalen etengabeko prestakuntza sustatzea, zerbitzuen kalitatea hobetzea sustatuz.

GOBERNU-BATZORDEA

Memoria hau egin den unean, honako hauek osatzen dute Gobernu-batzordea:

- **Lehendakaritza:** Miren Valverde
- **Lehendakariordetza:** Maite Martinez
- **Idazkaritza:** Sara Martinez
- **Diru-zaintza:** Antonio Caridad
- **Liburutegia:** Aintxane Bengoa
- **Arabako probintzia-ordezkaritza:** Miriam Aguilar
- **Gipuzkoako probintzia-ordezkaritza:** Gorane Elorriaga
- **Bizkaiko probintzia-ordezkaritza:** hutsik dago postua.

Batzordea berriro aktibatu da 2022. urtean, 2023ko trebakuntza-ekintzei begira (Trebakuntzako batzorde bakarrean bildu da).

- **Prestakuntza-batzordea:** Nerea Gonzalez, Henar Menéndez, Lorea Castillo, Janire Ibarrondo, Raquel Ruiz, Leire Atiega, Nagore Salazar, Maria Ricarte eta Laura Rodriguez.

Badago SARE SOZIALEZ (facebook, instagram, twitter, linkedin) arduratzen den lantalde bat ere, argitalpenak sortzen eta partekatzen dituenak: Antonio Caridad, Maite Martinez, Úrsula Merino.

2022ko ekitaldian ez da proposatu lan-batzorde berririk abiarazteko jenderik.

ETOLEk lau batzar presentzial egin ditu Gasteizen, ETOLeren egoitzan, askotariko gaiak lantzeko, eta agiriak eta batzar eta batzar orokorretarako gai-zerrendak prestatzeko. Eta hiru ekitaldi presentzial egin dira (Korrika, pintxo-potea eta Okupazio-terapiaren Eguna). Horrekin batera, online formatuko 16 batzar egin dira, taldeko lana eguneratuta izateko. Horiez gain, beste batzar asko ere egin dira, baita ETOLEko lan-taldeekiko eta beste organismo batzuekiko koordinazio-lanak ere.

ESTATUTUAK

Eusko Jaurlaritzaren esku dago, eta hark behin betikoz onetsi dezan zain gaude. Aldaketak egiten jarraitu da Eusko Jaurlaritzak hala eskatuta, baina oraindik ebazpenaren zain gaude.

2. ELKARGOKIDEAK:

2022. urtean, 23 alta berri egon da (horietako bi beste elkargo profesional batzuetatik ETOLera etorri dira) eta bederatzi baja ere egon dira (horietako bat beste elkargo profesional batera aldatu da, baina elkargokidetza egoerari eutsiz). Halaber, pertsona batek jakinarazi zigun erretiroa hartu duela, nahiz eta elkargoan jarraitzen duen eta elkargokide-zenbakia izaten jarraitzen duen, baina baldintza berezietan. Urte amaieran, 239 elkargokide zituen guztira ETOLEk (ikus 1. eranskina).

3. DEFENTSA PROFESIONALA

Ondorengo zerbitzuak egin dira 2022an:

1. Elkargoaren **estatutuak** aldatzea. 2021ean planteatutako eskaera horren jarraipena. Zuzenketen errekerimenduaren aurkezpena.

2. **Eusko Legebiltzarraren** aurrean egin litezkeen jarduketak. Hainbat batzarretan jorratu da Eusko Legebiltzarraren aurrean agertzeko aukera, Okupazio-terapiaren figura eta haren barruko beste figurak goragoko maila batean aurkezte aldera. Hainbat komunikazio izan da batzordeetako eta alderdi politikoetako arduradunekin, gai hori lantzeko.

3. **Osasun Arloko Profesionalen Erregistroa**. Elkargokideen datuak Osasun Arloko Profesionalen Estatuko zein Euskadiko Erregistroetan sartzeko baldintzak eta informazioa kontsultatzea.

4. **Etxetek**. Etxetek programa kudeatzeko gizarte politiken departamentuari laguntza teknikoa emateko zerbitzua kontratatzeke baldintzen agiria berrikustea. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hainbat elkarriketa izan ondoren, berretsi ziguten ez dela batere aldaketarik egin, eta Okupazio-terapiarekin kontaktzen jarraitzen dutela, baina arazoa dela terapeutak kontratatzeke edo terapeuten bajak ordezteko zailtasunak dituztela. Horren atzean dagoen arazoa aztertu genuen.

5. **Lanbide**. Euskadiko Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionala Lanbideri atxikitako elkargoen barruan sartzeari buruzko kontsulta egin zen, bi erakundeen arteko kolaborazio handiagoa egon dadin. Orain arte ez dugu erantzunik jaso.

6. Osasun Publikoko Estatuko Agentzia sortzeko lege-aurreproiektuari buruzko kontsulta.

7. **Hitzarmena** Urretxe klinikarekin. ETOLE elkargoak Urretxu klinikarekin duen lankidetzaz-hitzarmena berrikustea eta idaztea.

8. Aurrez aurreko batzarrak zein telematikako ETOLEekin. Batzar horietan, unean-unean mahai-gainean zeuden gaiak eta etorkizuneko gai posibleak jorratzen ziren, baita gai horiei nola heldu ere.

4.- INFORMAZIO- ETA ZEHAPEN-PROZEDURAK.

2022. ekitaldi honetan ez da zehapen-prozedurarik egin.

5. OKUPAZIO-TERAPIA EZAGUTZERA EMATEA ETA ZABALKUNDEA EGITEA

Bizkaiko Osasun Foroa.

2022an, Osasun Foroa ohiko batzarrak egin ditu, ekainaren 20an eta azaroaren 21ean, eta ETOLE ordezkatura egon da.

OSOIGO atariaren eskaera

Martxoan, Euskadin Okupazio Terapiako Gradua sor dadin bultzatzea eskatzeko sinadurak batzeari ekin zitzaion, sare sozialen bitartez. Ez zuen arrakasta handirik izan elkargokideen aldetik, eta zen helburua lortu.

Elkarrizketa ALEA Araba aldizkarian

Okupazio-terapiaren egunaren harira, elkarrizketa bat argitaratu zen Gasteizko Alea aldizkarian.

Eskuliburuak eta Txostenak

- CGCTOk Estatu mailan “Okupazio-terapia Hezkuntzaren arloan” agiriaren zabalkundea egiteko kronograma bidal diezagun zain jarraitzen dugu.

ETOLE ELKARGOAREN KOMUNIKAZIOAK ETA INFORMAZIOA TRANSMITITZEA

Webguneko langileen ataleko barne-mezuen bitartez ari dira egiten ETOLE elkargoaren argitalpen eta/edo komunikazio ofizialak. 16 sarrera egin ditugu, eta trebakuntzarako eta lanpostuetarako 87 eskaintza argitaratu dira www.etoled.eus webgunean.

Prentsan:

- Artikulua, Arabako Elkargo Profesionalen gehigarrian, apirilean.
<https://www.elcorreo.com/content-local/garantias-que-ofrecen-los-colegios-oficiales-de-alava/>
- El Correo de Alava egunkarian, mendekotasunari eta gizarte- eta osasun-arretari buruzko albiste digitalak, urrian. <https://www.elcorreo.com/content-local/especial-dependencia-alava/?ref=https%3A%2F%2Fwww.google.com%2F>
- Bannerra Noticias de Gipuzkoa egunkarian, urrian.
<https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/especiales/2021/10/23/terapia-ocupacional-mayor-calidad-vida-3653444.html>

Okupazio-terapiaren Eguna

Urriko azkeneko astean, okupazio-terapiaren mundu eguna hilaren 27an zela eta, hainbat artikulu argitaratu ziren hiru probintzietako prentsa idatzian zein digitalean. Sare Sozialetan ere etengabeko presentzia izan zuen gaiak.

Okupazio-terapeuten ekitaldi bat antolatu zen, egun hori ospatzeko eta ideiak eta esperientziak partekatzeko; pintxo-potea egin zen probintzia bakoitzean, eta aurrez aurreko topaketa bat, aire zabaleko jarduerekin (bizikleta-irteera CDC Foronda Michelin ziklismo-eskolaren laguntzarekin, zumba eta askaria).

ETOLE sare sozialetan

2022an, gure sare sozialak eguneratzen jarraitu dugu; gure elkargokideekin, beste okupazio-terapeuta batzuekin eta, oro har, jendearekin zuzeneko eta hurbileko harremana izateko modua dira sare sozialak. Horrez gain, gure diziplinaren zabalkundea egiteko tresna gisa erabiltzen saiatzen gara. Facebook, Twitter, Instagram eta LinkedIn sare sozialetan profilak izaten jarraitzen dugu.



Facebook: 2.367 jarraitzaile.



Twitter: 1.259 jarraitzaile.

COLEGIO PROFESIONAL DE TERAPEUTAS OCUPACIONALES
DEL PAIS VASCO
EUSKADIKO TERAPEUTA OKUPAZIONALEN LANBIDE



ETOLE TO Euskadi

@etole_to

Colegio Profesional de Terapeutas Ocupacionales del País Vasco

etole.eus Se unió en octubre de 2013

998 Siguiendo 1.259 Seguidores



17 Publicacio... 564 Seguidores 320 Siguiendo

ETOLE EUSKADI
Euskadiko Terapeuta Okupazionalen Elkarteak 🇪🇺 Colegio
Profesional de Terapeutas Ocupacionales de Euskadi 🌟
🔗 www.etole.eus/

Instagram: 564 jarraitzaile.



ETOLE. Colegio Profesional de
Terapeutas Ocupacionales del
País Vasco

"La Terapia Ocupacional, SOLO puede ser realizada
por personas DIPLOMADAS O GRADUADAS en Terapia
Ocupacional"

Hospitales y atención sanitaria • Vitoria-Gasteiz, País
Vasco / Euskadi

483 seguidores

LinkedIn: 483 jarraitzaile.

6. LANKIDETZA ESTATU MAILAN

Okupazio-terapiako Elkargoen Kontseilu Orokorra (CGCTO): ETOLEk eskubide osoko kide gisa parte hartu zuen Okupazio-terapeuten Elkargoen Kontseilu Orokorrak (CGCTO) otsailaren 5ean eta urriaren 1ean Madrilen egindako batzarretan, eta ekainaren 4an online bidez egin zuen ez-ohiko batzarrean.

WFOT (World Federation of Occupational Therapists)

ETOLEren Batzordeko kide bat izan zen WFOT erakundeak antolatutako Munduko Kongresurako Estatuko ordezkaria; Parisen egin zen kongresu hori, abuztuaren 27an eta 28an.

Socinto: ETOLEk Socintok antolatutako online bidezko bi batzarretan hartu zuen parte, ekainaren 10ean eta azaroaren 11n.

Lankidetzaren hitzarmenak: Ondorengo lankidetzaren hitzarmenak egin dira aurten, ETOLEren webgunean aurki ditzakezuenak:

- AR Fisioterapia Zentroa (Urretxu)
- CDC Foronda Michelin (Gasteiz)

BESTE JARDUERA BATZUK

KORRIKA: ETOLEk euskararen aldeko kilometro bat egin zuen apirilaren 1ean, elkargokideen parte-hartzearekin.

Adineko Pertsonentzako hitzaldia: ETOLEren Batzordeak “Adineko Pertsoneri” buruzko Trebakuntzako hitzaldia egin zuen Oleretan maiatzaren 26an, Gipuzkoako Senideak elkarteak eskatuta.

ELA gaixotasunari buruzko hitzaldia: ETOLEko elkargokide diren Nahizen zentroko kideek Trebakuntzako hitzaldia egin zuten urriaren 27an Donostian, Adela Gipuzkoa elkarteak eskatuta.

AURKEZPENA ERAKUNDE PUBLIKOEN AURREAN

2022. urtean zehar, ondorengo hauekin harremanetan jarri eta elkartu da ETOLE:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretarako Zuzendaria.
- Online bidezko eta aurrez aurreko batzarrak EH Bilduko legebiltzarkide batekin.
- Batzarra Arabako Batzar Nagusietako Osasuneko ordezkariarekin.
- EAJko Osasun Batzordearekin batzarra, Gasteizen.
- Eusko Abertzaleak Legebiltzarreko Taldeko ordezkariarekin batzarra.
- Euskal Sozialistak Legebiltzarreko Taldeko ordezkariarekin batzarra.

EKITALDIAK

Hainbat ekitalditarako gonbidapena jaso du ETOLEk, baina jende faltagatik, ondorengo hauetara bakarrik joan ahal izan da:

- Caser Fundazioaren Jardunaldia: erronka berriak espazio soziosanitarioan.
- Mentalia Zentroaren Jardunaldia. “SM Mentalia Gasteiz”.
- Ascudean elkarte. Trebakuntzako hitzaldia.
- Haurrekin: ahal dutelako, nahi dutelako eta behar ditugulako. Haurren eta Nerabeen Arretarako Batzorde Sektorial Iraunkorrak antolatuta
- “Haur Bermearen Euskal Estrategiaren” batzarra, Harren eta Nerabeen Arretarako Batzorde Sektorial Iraunkorrak antolatuta. ETOLEko elkargokide bat izan zen batzar hartako ordezkari tekniko.

Ekitaldi, jardunaldi eta batzar askorako gonbidapenei uko egin behar izan diegu, jende faltagatik eta denera iritsi ezin ginelako.

LIBURUTEGIA

Bederatzi liburu mailegatu ditugu aurten.

Gogorazten dizuegu webgunean dagoela eskuragarri katalogoa, baita txostenei eta agiriei buruzko atal bat ere.

Libururen bat falta dela uste baduzue, liburu berriei buruzko iradokizunak egitera animatzen zaituztegu.

8.- URTEKO BATZARRA

Elkargokideek ETOLEk antolatutako batzarretan izan duten parte-hartzeari dagokionez, hona hemen datuak:

Ez-ohiko Batzarra 2022ko urtarrilaren 30ean, presentziala, ETOLEren egoitzan, Gasteizko Florida kaleko 40. zenbakian (9 lagun), eta postazko parte-hartze bidez (16 epearen barruan, eta 25 epez kanpo).

Ohiko Batzarra 2022ko maiatzaren 14n, bide telematikoz eta ETOLEren Egoitzan –Florida kaleko 40. zenbakian– modu presentzialean: 10 elkargokide (horietako bost modu presentzialean, bost modu telematikoan, eta beste lauak botoa eskuordetuta).

9.- KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA

2022ko BALANTZE EKONOMIKOA

DIRU-SARRERAK. 29.556,05 €	
GASTUAK	
Bulegoaren alokairua 3.267€	-
Zerbitzu profesionalak	-4.375,51 €
Aseguru-primak. €	-439,30
Banketxe-zerbitzuak €	-733,87
Batzordearen gastuak 2.281,32 €	-
Beste zerbitzu batzuk 2.797,74€	-
Ikastaroen gastuak 0€	
Gastuak, guztira. €	-14.002,43
AZKEN EMAITZA	15.553,62€

10.- ONDORIOAK

Batzordekide garen aldetik, interesgarria iruditzen zaigu, amaitzeko, ohar batzuk egitea:

- Batzar orokorra modalitate mistoan antolatuta, errazagoa da elkargokideek batzarrean parte har dezaten. Hala ere, modu presentzialean parte har dezazuen animatzen zaituztegu, garrantzitsua iruditzen baitzaigu kontaktu pertsonala izatea eta topaleku bat partekatzea.
- Okupazio-terapiari laguntzeko esku-hartze maila guztiak lortzeko, funtsezkoa izaten jarraitzen du **Batzordea** eta **lan-batzordeak** osatuta egotea.
- **Hutsik dauden bete beharreko postuak:** *Bizkaiko ordezkaritza, kanpo-harremanak, sare sozialak, intrusismo-batzordea, trebakuntza-batzordea.*

- Batzordea bere lana profesionalizatzeko saiakera egiten ari da, indarrean dagoen legerian oinarritutako jardute-protokolo xehatuagoak prestatuz, eta bide ofizialetatik, ETOLeren ikuspegia eta misioa kontuan hartuta.
- Partekatzen den informazio guztia eskuragarri dago, webguneko langileen arloaren atalaren bitartez.
- Beharrezkotzat jotzen dugu gestio-lanetarako langile profesional bat hartzea, Batzordeak ez ditzan era horretako lanak egin behar, eta Elkargoan egin beharreko zeregin guztietara iritsi gaitezten.
- Gogorarazten dizuegu Batzordea prest dagoela edozein zalantza argitzeko edo, besterik gabe, informazioa partekatzeko, laguntza eskaintzeko, etab. Guztiok gara eta guztiona da ETOLE!!!

1. Eranskina.


2022. URTEKO DATU-BILKETA

Kontuan izanda 2022eko elkargokide kopurua 239 lagunekoa izan dela, ETOLEren datu estatistikoak erakusten dizkizuegu jarraian, elkargokidetzari dagokienez.


ELKARGOKIDETZEAK	
ALTAK	23
BAJAK	9




ETOLEko ALTAK	
ALTAK	237
LEKUALDAKETAK	1
RE-ELKARGOKIDETZEAK	1




ETOLEKO BAJAK	
BAJAK	8
LEKUALDAKETAK	1



ADINA	
> 35 urte	81
35-44 urte	118
45-54 urte	29
55-64 urte	10
65-69 urte	1
> 70 urte	0



EREMU GEOGRAFIKOAK	
ARABA	65
BIZKAIA	88
GIPUZKOA	86



SEXUA	
GIZONAK	22
EMAKUMEAK	217

